

Hernaniko Udala

Iragarkia

Biztanleen Udal Errolda: Biztanleen erroldan inskripzioa iraungitzat emateko jakinarazpena

Alkate jaunak 2023/01/25ean dekretu hau eman du:

«Azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzeko lege-aldaketa bat egin zuen Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 16.1 artikuluko 2. lerroaldean. Horren bidez, Europako Batasunekoak ez diren atzerritarrak Udal Erroldan egoitza iraunkorreko baimenik gabe inskribatzen direnean, pertsona horiek bi urtez behin berritu beharko dute inskripzioa.

Estatistikako Institutu Nazionalaren Ordezkaritza Probintzialak Europar Batasunekoak ez diren eta Hernanin bizi diren atzerritarren zerrenda jakinarazi digu. Egoki diren jarduerak egin ondoren eta berritzeko epea amaituta dagoenez, Alkatetza honi dagokio erroldatze-inskripzioa epe barruan berritu ez dutenen inskripzioa iraungitzat jotzea Biztanleen Udal Erroldan. Horrela ezartzen baitute Statistikako Institutu Nazionalako Lehendakariaren eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenaren 6. eta 7. puntuek. Izan ere, erabaki horren bidez, prozedurari buruzko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei iraungitzat jotzeko honako atzerritar hauen erroldatze-inskripzioak: Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrenak, egoitza-baimen iraunkorrik ez dutenak eta haien inskripzioak bi urtean behin berritzen ez direnak.

Horregatol guztiaguztiagatik,

EBAZTEN DUT:

1. Udal honetako biztanleen erroldan honako pertsona honen inskripzioa iraungitzat jotzea eta, ondorioz, pertsona horri baja ematea, ez baitu aurkeztu erroldako inskripzioa berritzeko dagokion eskabidea behar den epean eta moduan:

Espediente zk. N. ° Expediente	Identifikazio zk. N. ° identificación	Iraungitze data Fecha de caducidad
2022EOBA0101	Y6486472A	2022/10/22
2022EOBA0124	Y6423903V	2022/11/12
2022EOBA0128	F207108	2022/11/30
2022EOBA0135	Y7136627V	2022/11/17
2022EOBA0138	C02322355	2022/11/10
2022EOBA0141	Y0149657X	2022/11/04

2. Informazio hau Statistikako Institutu Nazionalera bidaltzea.

3. Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera igortzea, bertan argitara dadin».

Bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo daiteke, Donostian dagoen administrazioarekiko auzien epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarritz bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu edo jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, partikularrek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote udal honetako alkateari, hilabeteko epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita Errekurtso hori aurkeztu eta hilabetera inolako jakinarazpenik jaso gabe, errekurtsoa ezetsizat joko da.

Berraztertze errekurtsoaren berriazko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Donostiako epaitegian, 2 hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea erabakitzen baduzu, ezin izango duzu administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri errekurtsoa berriaz ebatzi edo administrazio-isiltasunez ezetsi arte.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-idazkaria

Hernani, 2023/01/25